



## ZINEMA TXIROA IKUSGAI LEIDORREN

Mugarik Gabe erakundeak antolatuta, gaurtik ostiralera bitarte izango da ikusteko aukera doan 2

**TOLOSALDEKO  
ETA LEITZALDEKO**

# hitza



**Asteartea**  
**2009-11-24**

VILURTEA 1.835.ZENBAKIA  
ESKUALDEKO EGUNKARIA

[WWW.TOLOSALDEKOHITZA.INFO](http://WWW.TOLOSALDEKOHITZA.INFO)



520 lagun elkartu ziren Zerkausian egin zuten herri bazkarian. GURE KAIOLA

## BABARRUN PLATERIK ONENA ARAMENDIRENA

**TOLOSA** Gure Kaiola elkarteak antolatzen duen Babarrunaren Lehiaketa Gastronomikoan albizturtarra izan da irabazlea 3

## Mendiluzek ia ziurtaturik du finalerako txartela

**IRURA** Iruñeko saioan hirugarren geratu zen, eta sailkapen orokorrean bigarren postuan dago 5



Asteasuko Usarrabi pilotalekuan izan zen herenegun kanporaketa. SARA GOMEZ

## Otaegi eta Mujika finalerako sailkatu dira

**ASTEASU** Maila Nagusiko Euskadiko Aizkora Txapelketako kanporaketa jokatu zen herenegun 4



**EGUZKILORE®**  
osagarriak



[www.eguzkilorejoya.com](http://www.eguzkilorejoya.com)



DONOSTIA: Hernani, 13 - BILBO - GASTEIZ - Zuluaga Bittetegiak: Galdakao eta Zornotza

## Zinema txiroaren jaialdiko filmak ikusgai Leidorren

**Tolosa** » Mugarik Gabe erakundeak antolatuta, Garapen eta Komunikazio emanaldiak izango dira Leidor antzokian, gaurtik ostiralera bitartean. Denera, lau emanaldi ikusteko aukera izango da dohainik. Saioak 20:00etan izango dira egunero.

### ERREDAKZIOA

Mugarik Gabe erakundeak antolatuta, Garapen eta Komunikazio emanaldiak izango dira Leidor antzokian, gaurtik ostiralera bitartean. Denera, lau emanaldi ikusteko aukera izango da dohainik. Saioak 20:00etan izango dira egunero.

Zinema pobeak ez du esan nahi ideiarik edo kalitate artistikorik gabeko zinema denik, ekonomia xumeko zinema delabaizik; etagarapen txikiko herrialde periferikoetan bezala maila ekonomiko kultural handiko herrialdeetan ere egiten da, baita ekoizpen programa ofizialen barruan zein zinema independente edo alternatiboa.

Mugarik Gabe erakundearen apustua «komunikazio eta informazio ezberdina lantzea» da, ho-

rregatik Gibarako (Kuba) Zinema Txiroaren Nazioarteko Jaialdia bezalako ekimenak laguntzen ditu. Jaialdi horretatik aukeraturako emanaldiak ikusteko aukera izango da egun hauetan Tolosan, eta baita Euskal Herriko hainbat hiritan ere.

### Egunero, hainbat lan ikusteko

Egunero, lan bat baino gehiago ikusteko aukera izangoda. Gaur, esaterako, bost izango dira: *Los elefantes nunca olvidan*, *La deseada Justicia*, *La hipocresía del deseo*, *Nasija* eta *La maltratada historia de María*. Bihar berri, beste bost film labur ikusteko aukera izango da Leidor aretoan: *Viaje de Saïd*, *Hijab*, *Revolucion azul*, *Mohsen makes film* eta *Voyage en sol majeur*. Ostegunean, hiru izango dira eskainiko diren lanak: *Invierno en Bagdad*, *Carretilas Driver* eta *Las niñas y los niños ante la inmigración*. Azken emanaldia ostiralean izango da, bertan lan hauek eskainiko dituzte: *Trabajo infantil en Nablus* eta *Las Cruces poblado proximo*.

## Unai Elorriagak hitzaldia eskainiko du gaur

**Tolosa** » Galtzaundi euskara taldeak antolatuta, 20:00etan izango da solasaldia; bere azken lanaz ariko da idazlea.

### ERREDAKZIOA

Galtzaundi euskara taldeak antolatuta, Unai Elorriaga idazleak hitzaldia eskainiko du gaur. Ekitaldia Kultur Etxean izango da, 20:00etan. Bertan, idazle bilbotarra bere azken lanaz, *Londres kar-toizkoa* da, mintzatuko da.

Aurretik argitaratu dituen lane-

tikurrunduz, estilo etagai berri batzuekin itzuli zen duela hilabete batzuk Elorriaga.

Phineas protagonista aurki dai-teke, arratsaldero bere lagunekin hamazazpigarren teiltatura igotzen dena. Non kokatutakoa den litzateke, hala ere, garrantzitsuena, erabat amaitu ez den diktaduraren ondorengo garai lanbrotsuan gertatzen baita. Gizarte horren egoera azaltzen du nobelak, neba-arreba batzuen istorioaren bitartez.

Idazleak ez du, hala ere, diktadura jakin batez hitz egin nahi, honen esentziaren bila joan da, hau da, sorburua.

## Erraz irabazi dio Laskorainek Bizkaiko Astraburua taldeari

**Tolosa** » 9-3ko emaitzarekin amaitu zen Usabalen jokaturakoa; defentsa ahula erakutsi zuten kanpokoek.

### ERREDAKZIOA

Pasa den astean Iturriondo taldeari irabazita, konfidantza osoz agertu zen Laskorain Ikastolako taldea larunbat arratsaldean Usabalera. Aurtean berri, saiklapeneko azken postuetan kateaturik dagoen Astraburuako talde bizkaitarra izan zuen.

Ikastolakoek saiklapeneko zuloan dauden taldeekin izan dituz-

ten partidekin gogoeta eginda, beharrezko seriotasunarekin hartu zuten larunbatekoa. Epailerek txistu jo orduko, arrapalada bizian abiatu ziren eskualdeko mutilak. Honela, aurkariak konturatu zirenerako ikastolakoak 6-0 aurreratu ziren markagailuan. Beñat, Gil berritan, Joniko, Ekhi eta Lander izan zirengoleatzaile. Laskorainek egindako lan ona kontuan hartu behar bada ere erabakiorragoa izan zen aurkariak defentsan erakutsitako ahultasuna.

Asperraldirako ezin hobea izan zen bigarren zati batean, aurkariak ohorearen gola egin zuten eta Laskoraineko Giller eta Jonikok, euren arratsaldeko bigarren gola sarera-

tu zuten partida 9-leko markagailu esanguratsu batekin itxiz.

Norgehiagokak izan zituen alde baikor guztien artean, Mikel Alonsoen merezitako debuta dago. Mila berbaldi tekniko-taktiko jaso ondoren, norgehiagoka borobila osatu zuen.

Beste hiru puntu poltsikoratuta, babarrunaren festan murgildu ziren Usabalera gerturatutako zale-tu eta Laskoraineko kideak.

Filialek ere euren partidak irabazita asteburu borobila izan da Laskorainentzat. Aitorren mutilek 3 puntura zuten liderra erraz menderatu zuten 9-3, eta Andoniren taldea saiklapeneko bigarren postura igo da garaipen berri honekin.

## 6-2 irabazi dio Transportes Lakunzak Euskaldunari

**Villabona** » Olaederran, Andoaingo taldea izan zuten aurkari; garaipenak azken postuetatik igotzeko balio izan die eskualdekoek.

### ERREDAKZIOA

Andoaingo Euskalduna izan zuen aurkari larunbatean Transportes Lakunza taldeak. 6-2 irabazi zuten eskualdekoek, etxean, denboraldiko bederatzigarren jardunaldian. Garaipen hau oso garrantzitsua izan da eskualdekoentzat, saiklapeneko postu arrikutsuetatik aldentzeko balio izan baititu.

Transportes Lakunza indartsu atera zen jokora, partidako gidaritza emanaz. Euskaldunakoak etxekoak akats bat egiteko zain egon ziren, baloia eskuratu eta kontraerasoan hasteko. Partida hasi eta berehala, min hartu zuen Sanchezek, eta jokalaria ezin izan zuen jarraitu. Lehendabiziko zatian, etxekoak nagusi baziren ere, ez zuten golik sartzea lortzen. Hala, hau amaitzeko lau minutu falta zirenean Hautsi Izagirre, ateko zain jartzea erabaki zuten, bisitarien defentsa desmarkatzeko asmoz. Lehen eraso kaskar baten ostean, bigarrean, Sergio Pascualen eskutik etorri zen lehenda-

biziko gola. Minutu gutxi beranduago, Ander Etxeberriaren eskutik etorri zen hurrengo, eta emaitza horrekin amaitu zen lehen zatia.

Bigarren zatian, emaitzak hobetzeko asmoz ekin zitoten Transportes Lakunzakoek. Horrela izan zen, denbora gutxian, bata bestearen atzetik etorri ziren 5-0 arteko golak. Emaitza hau lortzean, lasaitu egin ziren billabonakoak, eta ahuleziak une hori aprobetxatuz, bi gol sartu zizkieten Andoaingoek. Hala ere, alde nabarmena zen, eta hau areagotuz joan zen, 6-2 izan zelarik partidako azken emaitza.

## Astean zehar egindako lanak ez du behar adinako emaitza eman

**Tolosa** » Bide Bide Ibiza talde tolosarrak Donostiako Easo izan zuen aurkari asteburukoan, eta 84-65 galdu zuen.

### ERREDAKZIOA

Aste osoan lan ona eginez partida irabazteko asmotan azaldu zen Bide Bide Ibiza taldea Gaska kiroldegira, hurrengo astean errekupe-ratio planarekin hasiko den, Mendiluren baja garrantzitsuarekin. Aurkaria ez zen edonolako, Easo. Denboraldi ona burutzen ari dira donostiarrak, beraien indargunerak argi dituztenak eta beraietatik

probetxua ateratzen dute etengabe.

Partida hasiera batean urdina izan zen. Jasotako aginduak ezin hobeto bete zituzten eta aurkariaren ahulguneak aprobetxatu zituzten lehen minutuetan 0-6ko partzialarekin hasteko eta 11-19 aurretik jartzeko 7. minutuan. Bazirudien tolosarren eguna izango zela baina minutuak aurrera joan ahala Bide Bide Ibizen indarra itzaltzen joan zen. Bigarren laurdenean nahi eta ezin bat izan zen.

Atsedena eta gero taldea nagitu atera zen. Donostiarrak behin eta berriro aurkitzen zuten saskiratzeko zirrikituren bat eta markagailuari buelta emateko

ahalegin guztiak bidean geratzen ziren. Hala ere, talde partidari zegoela zirudien. Denboraguztiaz 8-12 puntu arteko desabantailatan mugitzen zen eta zerbait sartzen hasten zen unean buelta emango zitzaizkielaren ideia zegoen oraindik.

Horrela partida azken minutuetara iritsi zen, joko asko trabatuz eta kanpotarrek bata bestearen atzetik eginiko faltek Easori puntu errenta handitzea erraztu zitoten, azkenean 19 puntuko abantaila lortuaz.

Hurrengo astean Bidegintza liderra hartuko du etxean Bide Bide Ibizak. Aukera ezin hobea izan daiteke etxean suspertu eta maila mantentzeko.



**EUSKO JAURLARITZA**  
**GOBIERNO VASCO**

KULTURA SAILAK DIRUZ LAGUNDUTAKO HEDABIDEA

# Juan Mari Aramendik prestatu du, beste behin, babarrun platerik onena

**Gastronomia** » 21 sukaldarik hartu zuten parte Gure Kaiola elkarteak antolatzen duen Lehiaketa Gastronomikoan.

## INIGO TERRADILLOS

Babarrunaren inguruan festa giro polita zabaldu zen igandean Tolosako kaleetan, bezperakoari jarraituz emanaz. Izan ere, larunbatean jende ugari ibili bazen Triangulo plazaren inguruetan azoka berezia, babarrunaren lehiaketa edota liburuaren azoka zela eta, herenegun ere jendea erruz gerturatu zen herriko erdigunera.

Goizean goizetik ekin zioten sukaldariek babarrunak prestatzea. Guztira, 21 parte-hartzaile izan ziren Gure Kaiola elkarteak antolatzen duen Babarrunaren Lehiaketa Gastronomikoan. Osagai berearekin prestatu behar zuten platera, hau da, bezperan Ekoizleen Lehiaketan irabazle izan zen babarrunarekin. Jose Mujika legorretarren lekaleak erabili zituzten, beraz, eta epaimahaia erabiltzen, Donostiako Gasteiz jatetxeke Juan Mari Aramendik eta Juan Mari aitak prestatu zuten platerik goxoa. Aramendi aita-seekek osagaiaren saria ere eraman zuten, eta platerik dotoreenaren saria, berriaz, Tolosako Illargi tabernako Maider eta Jose Carceller-entzat izan zen.



Goian ezkerrean bazkariaren une bat, eta eskuinean, epaimahaiko kideak. Behean, arraunlariak omentzen. GURE KAIOLA

**520 lagun herri bazkarian**  
Sukaldarien lana ikustera jende ugari gerturatu zen Triangulora, eta baita plazan jarri zituzten era guztietako jakien postuetara ere. Gure Kaiola elkarteak ere taberna-oxoa jarri zuen txorizoa eta odol-kiakin hamaiketako polita egiteko aukera eman zutelarik. Elkartekoak oso gustura azaldu dira herenegun egunak izandako harrerarekin: «Eguraldia primerakoa izan zen, eta oso giro polita sortu zen; gure kasuan, 13:00etarako jatekoa amaitu zitzaigun Triangulon jarritaguen postuan, beraz, oso ondo joan zen», azaldu du Joxe Mari Kaminos Gure Kaiola elkarteke babarrunaren inguruko ekitaldien koordinatzaileak. Jatekoaz eta edatekoaz gain, giroa jartzen txar-rangen musikak lagundu zuen.

Zerkausian jarraitu zuen festak ondoren, bertan babarrun jatea egiteko baitzen. 520 lagunek hartu zuten parte, horietatik 55 Gure Kaiola elkarteke bazkideak. «Bazkarian ere giro ona izan zen nagusi, eta guztia espero bezala irten zen», gehitu du Kaminosek. Omenaldiak ere izan ziren tarteen, Tolosa-Getaria trainerako neska arraunlariak Tolosako Udalaren agurra eta oroigarria jaso baitzuten, 2009 denboraldian lortu dituzten emaitzak gorai patuz. Irabazitako 8 banderak ere Zerkausian jarri zituzten ikusgai.

## Aldaketa «onerako»

Aurten lehen aldiz Zerkausian egin dute herri bazkaria, eta Triangulon Lehiaketa Gastronomikoa, eta aldaketa «positiboa» izan dela adierazi dute: «Proba bezala egin dugu, baina oso gustura geratu gara, errepikatzeko moduan».

# «Albizzardek mikroklima moduko bat du nire ustez»

**JUAN MARI ARAMENDI** » Gasteiz jatetxeke sukaldaria

**Albiztur** » Aurkeztu den azken hiru aldietan irabazi du; aurtengo babarrunak azala gogorragoa duela dio.

## I. TERRADILLOS

Ez da lehenabiziko aldian Juan Mari Aramendik Babarrunaren Lehiaketa Gastronomikoa irabazten duela. Ez da harriztekoa, albizturtarrak dioen bezala, «kazuelen artean» jaino baitzen. Bere prestatzeko erak sekreturik ez duela dio.

**Hirugarrenez jarraian irabazi du lehiaketa.**

Bai, aurkeztu naizen azken hiru aldietan, hau da, 2005ean, 2007an eta 2009an irabazi dut. Oso gusturanga.

**Zerbait berezia izango du zure prestatzeko erak hainbeste gustatuko.**

Ez dut sekreturik. Guztiok aurreko eguneko lehiaketan irabazte



Aramendi aita-seekek. GURE KAIOLA

izan den babarrun kilo bat izaten dugu. Litro eta erdi ur gehitzen diot nik, tipula txiki-txiki eginda eta goilarakada bat olio. Azkenik, azken uanean gatzatzen diot.

**Eta kitto.**

Bai. Suarena ere ondo zaintzen dut. Irakiten jarri eta 10-15 minutuz su biazian izaten ditut, eta hortik

aurrera, su epelean uzten ditut plantxan. Egosten ari direlakazuela mugitzen dut noizbehinka. Ez da komenigarria goilararekin nahastea, hautsi egin baitaitezke.

**Eta zenbat denbora igaro daitezke bukatzerako?**

Hereneguneko lehiaketan, esaterako, 3 ordutan egosita zeuden. Ba-

barrunak euren puntuan daude salda ez lodiegia ez eta mehegia baidute. Salda pixka bat izan behar dute, baina ez gehiegi.

**Zuk nola ikasi zenuen babarrunak prestatzen?**

Amak erakutsi zidan. Gurasoek 26 urtez taberna-jatetxea izan zuten Albizturren, eta orduan ikasi nuen. Kazuela artean jaino nintzela esan daiteke.

**Gurasoen bidea jarraitu duzula esan daitezke.**

Bi arrebekek sagardotegi bat dute Donostian, eta nik Gasteiz izena duen taberna-jatetxea Donostian baita ere. Bietan egunero izaten dira babarrunak aukeran.

**Eta jende askok eskatzen al dituzte?**

Bai. Jendeak oso gustura jaten ditut.

**Zer moduzkoa iruditu zaizu aurtengo babarruna?**

Aurtengoak azala zakar xamarra dauka. Agian egun lehor asko egon direlako izan daiteke. Kontua da, barrutik ondo egosten direla baba-

rrunak, baina azala oraindik gogor geratzen zaiela.

**Lekalearen lehiaketan edota lehiaketa gastronomikoan, ia beti azaltzen da Albiztur. Zergatik dela uste duzu?**

Nire ustez, mikroklima moduko bat-edo du Albizturrek. Zuloan dagoen herria da, eta, era berean, harriz inguratua. Uste dut izan daitekeela eguzkiaren berotasuna hartzea haitzek, eta gauzez berotasun hori lurra hartzea haitzetatik. Horrek nolabaiteko klima berezia ematen dio herriari, eta babarrunetan, esaterako, nabaritzen da.

**Hurrengo urtean ere lehiaketan aurkezteko asmoa al duzu?**

Hurrengoan ezingo dut, baina hemendik bi urtera bai. Berezia izango litzateke orduan irabaztea lehiaketak 25 urte betetzen baititu. Baina zorte kontua ere bada, bate-tik, lehiaketan sartzea, eta bestetik, epaimahaia zuk egindako plateragustatzea.

# Nazabal izan da garaile eta Otaegi eta Mujika finalerako sailkatu dira

**Asteasu** » Nazabal izan zen nagusi eta bere atzetik, Lopez, Azurmendi, Senosiain I.a, Otaegi eta Mujika sailkatu ziren.

## ENERITZ MAIZ

Asteasuko Usarrabi pilotalekuan Maila Nagusiko Euskadiko Txapelketako kanporaketa jokatu zuten herenegun, eta Nazabal izan zen nagusi. Pilotalekua guztiz bete zen, 415 ikusle bildu baitziren hamaika aizkolariek jokatzeko zuten kanporaketa zuzenean ikusteko. Abenduaren 20an, Arbizun jokatuko dute sailkatuek finala.

Asteasuko Usarrabi pilotalekuan izan ziren hamaika aizkolarierietatik Nazabal, Lopez, Azurmendi, Senosiain I, Otaegi eta Mujika lortu zuten finalerako txartela. Beraz, hiru gipuzkoar eta beste hiru nafar lehiatuko dira. Igandean, lehen mailako txartela galdu zuen azkena sailkatu zen Daniel Vicente otsagabiarrak eta datorren urtean bigarren mailan aritu beharko du. Jexux Mari Mujika ibartarraren ostean, Luis Txapartegi, Aitor Senosiain, Joxe Mari Olasagasti eta Jose Angel Zubiaga arabarra izan ziren. Hauek lehen



Usarrabi pilotalekuan, hamaika aizkolariek hiru txandatan aritu ziren lanean. SARA GOMEZ

mailan jarraituko dute. Joseba Otaegi zizurkildarra eta Jose Angel Zubiaga meoioarra lehen aldiz aritu ziren Euskadiko Maila Nagusiko Txapelketan. Biak alabiakiazko Euskadiko II. Mailako Aizkora Txapelketako txapelduna eta txapeldunordea izan ziren. Eta esan behar, Otaegik oso emaitza ona lortu zuela eta merezimendu osoz pasa dela finalera.

Hamaika aizkolariek hiru txandatan lehiatu ziren eta 54 ontzako

bi enbor, 60 ontzako bi enbor eta 72 ontzako bestebien enbor ebakibehar izan zituzten. Nazabalek lehen egurretik erakutsi zuen nagusitasuna.

Eskualdekoak diren Jexux Mari Mujika ibartarrak eta Joseba Otaegik zizurkildarrak lehen finalerako jokatu dute Arbizun.

**Olano leitzarra Txapeldun III. Mailako Aizkora Txapelketan**  
Arkaitz Olano leitzarrek irabazi

zuen III. Mailako Euskadiko Aizkora Txapelketa. Goizuetan jokatuko den eta kasu honetan ere, pilotalekua guztiz bete zen.

Oso lehia estua eta txalagarria eskaini zuten finalean aritu ziren sei aizkolariek. Azken aizkora kolpeak jo arte, kolokan egon zen txapela, eta baita, bigarren eta hirugarren postuetan nor sailkatu ere. Sei aizkolariek bosna pago-enbor ebaki behar izan zituzten, hiru kanardiko eta bi 60 ontzako.

## » SAILKAPENA

### Asteasuko kanporaketa

- Nazabal, 18:00.
- Lopez, 20:05.
- Azurmendi, 21:09.
- Senosiain I., 21:57.
- Otaegi, 22:27.
- Mujika, 22:46.
- Txapartegi, 22:49.
- Senosiain II., 23:50.
- Olasagasti, 24:00.
- Zubiaga, 24:16.
- Vicente, 25:22.

### Goizuetako Finala

- Olano, 14:23.
- Larretxea, 14:59.
- Mugertza, 15:03.
- Aizpuru, 15:38.
- Castro, 16:13.
- Erdozioa, 18:26.

### Apustu berria otsailean

Ostiralean sinatu zuten apustu berria Alex Txikon eta Joseba Otaegik. Datorren urteko otsailean 28an jokatuko dute Azpeitiako zezen-plazan. Kirolari bakoitzak, korri, harria jaso eta aizkora egin beharko du. Egin beharreko lana, 100 kiloko zilindro zaharra 25 aldiz jaso, ondoren aizkora hamalau kana erdiko moztu eta bukatzeko zortzi kilometro korrika egitea izango da. Alde bakoitzak, 7.000 euro jarri ditu eta akordioa ixteko ez zuten arazorik izan. Desafioa, Txikonek luzatu zion Otaegiri eta beraz, apustu berri bat izango da urte hasieran herri kirol zaleentzat.

# Irura eta Anoeta lan munduan euskara bultzatzen

**Anoeta** » Galtzaundi Euskara Taldearekin, Udalek enpresa munduan euskara bultzatzeko hitzarmena sinatu dute.

## E. MAIZ

Anoeta eta Irurako Udalek eta Galtzaundi Euskara Taldeak, enpresa munduan euskararen erabilera areagotzeko helburuarekin hitzarmena sinatu dute. Anoetako Udalean elkartu ziren atzo bertako alkate Periko Peñagarikano, Irura-



Nora Olana, Periko Peñagarikano eta Marimi Ugalde. E. MAIZ

ko Udaleko Marimi Ugalde eta Galtzaundi Euskara Taldeko Nora Olano.

### Anoeta eta Irurako Udalak

Jada hirugarren urtez jarraian hitzarmena sinatu duen Anoetako Udalak hitzarmenaren garrantzia azpimarratu zuen: «2007. urtean hasi genuen hitzarmenari jarraipena egin nahi genioke hitzarmen honekin. Guztiz garrantzitsua iruditzen zaigu enpresa munduan ere euskararen sustapena eta bultzatzea. Gure nahia ahalik eta enpresa gehienek euskara erabiltzeko eta normalizatzeko konpromisoa hartzea izango litzateke», azpimarratu zuen Periko Peñagarikano.

Udalak bere aldetik, «ahalegin guztiak» egingo ditu enpresa horiei laguntza emateko. Gainera, beraien hala nahi izanez gero, Udalarekin izango dituzten harremanak euskara hutez izango lirartekeela gaineratu zuen.

Marimi Ugalde Irurako alkateak, bere aldetik, euskararen normalizaziorako urratsa nabarmendu zuen: «Iruraren kasuan, bigarren urtez sinatu dugu; Anoetak eta Irurak helburu berdinak ditugu, enpresa munduko euskararen

normalizazioa. Enpresa asko ditugu eta pisu handia dute eta mundu hori ere ukitu beharra daukagu, nahiko erdalduna baita, eta lan asko egin beharra dago».

Anoeta eta Irura herri euskaldunak dira eta UEMAn sartutako herriak direnez, Galtzaundiren laguntzarekin enpresen mundua euskalduntzeko, Irurako Udalak ere beharrezko diren laguntza guztiak jarriko ditu.

Bestalde, Galtzaundi Euskara Taldeko Nora Olanok euskara esparru guztietan zabaltzeko jardun zuten: «Gure helburu nagusia euskararen normalizazioa esparru guztietan bultzatzea da eta lan mundua oso esparru garrantzitsua da; gure ahalegin handiena bertan jartzen dugu», azaldu zuen.

Duela hamar urtetik ari dira lanean baina lau urtetik hona atzerapausuak ematen hasi zirela nabarmendu zuen Olanok atzoko ekitaldian eta horregatik Udalekin hitzarmen bidez lan egiteko apustua egin zutela: «Lan egiterako orduan alde handia nabaritu dugu eta enpresariekin harremanetan jartzerako orduan babes instituzionala izateak erraztu egin du gure lana».

## Pirritx, Porrotx eta MariMotots

IRRIEN LAGUNAK CDa

16 €

Euskal pirata bihurriak gara;  
zatoz gurekin irriak abordatzera!

Noiz eta nola egin eskaria?

Azaroaren 30 arte:

• 902-82 02 01

• harpidetza@hitza.info

Bidalketa gostuak doan



PIRATAK  
DVDa  
18 €



hitza

# Aitor Mendiluze hirugarren geratu da Iruñeko saioan, 669,75 punturekin

**Bertsolari Txapelketa Nagusia** » Unai Iturriagak irabazi zuen saioa herenegun, Iruñeko Anaitasuna pabilioan.

## ERREDAKZIOA

Giro ezin hobea lortu zuten herenegun, Iruñeko Anaitasuna kiroldegian elkartu ziren 1.600 lagun inguruk. Bertan, Bertsolari Txapelketa Nagusiko azkenaurreko finalaurrekoaren bigarren itzulia jokatatu zuten; bertsotan Irurako Ai-

tor Mendiluze aritu zen. Lehen itzulian 680 puntu lortzetik zeterren irurarra eta igandekoarekin 1.349,75 batu zituen, 669,75 lortu baitzuten. Hirugarren egin zuen igandeko saioan; irabazlea Unai Iturriaga izan zen, 692,25 punturekin. Izugarrizko saioa egin zuen Durangokoak. Atzetik geratu ziren, hurrenez hurren, Amets Arzallus (685,75), Aitor Mendiluze, Iñaki Zelaia (639,25), Julio Soto (628,50) eta Onintza Enbeita (620,75).

Gai emalea Alaitz Rekondo izan zen Iruñean eta epaile lane-

tan, berriz, Zigor Leunda, Joseba Santxo, Ekaitz Elorriaga, Mirari Azula, Eneko Bidegain, Bakarne Urreaga eta Jon Abril aritu ziren.

## Mendiluzerentzat, finala ia ziurtatuta

Herenegungo saioaren ostean, bakarra geratzen da jakiteko nortzuk izango diren abenduaren 13ko BE-Ceko finalean. Orain arteko emaitzen arabera, Aitor Mendiluzek ia ziurtatuta du finalerako txartela. Bigarren da behin-behineko sailkapen orokorrean eta sei bertsolari falta dira finalaurrekoekin amaitzeko. Zazpi sailkatzen direnez finalerako guztiek Mendiluze baino puntu gehiago lortu beharko luke, zenbait kasutan hau oso zaila izango delarik.

## » MENDILUZEREN SAIOA

■ **10eko handian.**

136.

■ **8ko txikian.**

136.

■ **10eko txikian.**

129,50.

■ **Koplatan.**

130,75.

■ **Kartzelako lana.**

139,50.

## Z Zenbakia

# 1.349,75

■ **Puntu.** Batu ditu orotara Aitor Mendiluze irurarrak. Lehen itzulian 680 lortu zituen eta bigarren goan 669,75 lortu zituen herenegun. Saikapan orokorrean, finalaurreko baten bigarren itzulian faltan, bigarren da Irurakoa.

# Bigarren buelta



## » Iritzia

**Felix Irazustabarrena**

**E**ta bigarren saioa zen Iruñeko. Aurrekoan puntu dexente pilatutakoak batzuk eta pilatu beharrekoak besteak. "Batzuk arriskatu egin beharko dute eta bestek eutsi" aipatu zidan batek Anaitasuna sarreran. Baina hori nola egiten da? Gaia entzun eta bururatzen den ideia, korapilatzen den esaldia edo zerrendatik aukeratutako errima aproposena momentuan etorritako onena baldin bada, eutsi behar duenak gordeko du? Eta arriskatu behar duenak?

Beraz, bakoitzak daraman aldarrea, motibazioa... kontutan hartu gabe, gauza bera egitera joan zirela Iruñeara, alegia ahalik eta ondoen bertsotan egitea.

Denek ez zuten neurri berean asmatu. Neurri guztietan erabat asmatu zuenik ere behar bada ez.. Baina Aitor Mendiluzek, gaur hemen arretra jarriko diogunak, asko asmatu zuen.

Ofizio lana egin zuela iruditu zitzaidan eta ofiziozkoetan, beraz gehienetan, aritu zela ofizio. Erabat bertsolari.

Ariketa batzuk desberdinak ziren buelta honetan, baina ez zirudien horrek aldaketa handirik suposatuko zuenik. Lehen ariketa zortziko handitik hamarrekora pasatzen zen, beraz beste puntu bat erantsi behar. Horrek alperrikako bete lana egiteko arrisku gehiago

zearren, baina lotura, joskeratan asmatuz gero pieza borobilak egiteko aukera. Horrela egin zuten Aitorrek eta Ametsek transexualen paperean.

Beste berrikuntza lauho handia edo askotan koplak bezala ezagutu dugun neurria zen. Beste era batekoa, bizia, zorrotza, erritmoa eta kolpea eskatzen duena. Gaiak ez ziren behar bada asko lagundu (sagu batekin beldurtuta dauden animalia exotikoen zaleak) batez ere kolpeak emateko garaian, baina lan izugarria egin zuten. Elkarri lagunduz, osatuz, bideak topatuz, oso bertsolari. Eta hor elkarrekin aspalditik eta askotan aritutako Zelaia lagun izateak lagunduko zion. Santa Ageadako koplari ikusi genituen Hernaniko bertsoskolako biak, Iruñean.

Koplatan biak ongi ezkontzea zela garrantzitsuen irakurtzen nion bezperan aditu bati. Hona hemen adibide bat.

Atentzioa deitu zidan zortziko txikian, bertsos baten nabarmen, hirugarren puntuan zuela Aitorrek arrazoa, txistea. Saltsa ikasten ari den bere ama beste saltsatan sartu ote zen esan eta azken puntuan galdera, iradokizuna azaltzen zuten. Honek, eta errepikapenarik gabeko doinu bidea irekitzen zion bertsos lagunari, lana elkarrekin osatzen ulertzen du Aitorrek ofizioa.

Bakarkoan ikusi nuen berriro ere borobildu gabe. Ohituta geunden Aitorrek bere arrastoa uzten horrelakoetan, eta ondo egin zuela onartuta (puntuen gehien lortu zuen ariketa izan zen) lana teknikoki ona eta ondo bete, ni ez ninduen bete. Seguru asko BEC-en izango ditu beste bi aukera. Zain egongo gara.



Mendiluze, Zelaia, Soto, Arzallus, Iturriaga eta Enbeita. BERTSOZALE ELKARTEA



## harpidedun izateak badu saria

### ① Hotel Gaua

Trintxera nekazal ostatuko suitean **gaua eta gosaria** bi lagunentzat

Tolosa - Azpeitia errepidea, 10.Km-a  
20737 - ERREZIL  
943 681 206 - 943 681 208  
www.trintxera.com




### ③ Titirijai 09 bonuak

Titirijai 09 txontxongilo emanaldietarako helduen eta haurren **bonu bana**



### ② Otordua

Baliarraingo **Zartagi** jatetxean bi lagunentzako otordua



### ④ Diskoa

Ken Zazpi taldearen "**Ken Zazpi urte zuzenean**" 2 CD-DVD, bi harpidedunentzat



Parte hartzeko deitu edo idatzi: **902-82 02 40 / txokoa@hitza.info** [harpidedunen kodea, izena, herria, eta zein eskaintzetan parte hartu nahi duzun garbi adierariz] Aste honetako astearte, asteazken eta ostegunean, 09:00etatik 17:00etara. Saridunak larunbatean argitaratuko ditugu.

# Mendizabal eta Zabala Emakumea Pilotariko lehen mailako irabazleak

**Anoeta** » Bigarren mailan, aldiz, Lizeaga-Lucas bikoteak irabazi zuen; finala larunbatean izan zen Hernaniko pilotalekuan.

irabazi zuten 30-19. Lehen mailako partidaren, aldiz, Azpeitiako Miren Zabala eta Maider Mendizabal anoetarrak irabazi zuten 30-24.

**Bigarren mailakoak, lehenengo** Jaialdia 2. mailako finalarekin hasi zuten. Hasi aurretik lehia orekatu eta estua izatea espero bazen ere, uste baino errazago eta erosoago aritu zen Lizeaga-Lucas bikotea batez ere estrategia ederki definitu zutelako, baina baita aurkariak, Tijero-Ezcurdiak, askotan elkarren artean komunikazio arazoak izan zituztelako ere.

Markagailuan alde ireki zuten hasiera-hasieratik eta ez zuten estualdi handiegirik pasa behar izan 30 puntuetara ailegatzeko. Leire Lucasek, bigarren mailan, biga-



Maider Mendizabal (ezkerretik lehena) eta Nagore Arozena (hirugarrena) bikain aritu dira IV. Emakumea Pilotari Txapelketan. HITZA

rren txapela jantzi du jarraian eta bera izan da, gainera, txapelketako pilotaririk onena. Larunbatean ere ederki asko moldatu zen, oso pilota gutxi galduz. Ane Lizeagak ere erakutsi du badakiela zer den pilotan jokatzeko, Lucasekin tandem ezinhobea osatuz.

Garbiñe Tijero, berriz, hurrengo aukeraren zain geratu da, larunbatean indarka eta une batzuetan oso presaka jokatu baitzuen. Bere bikotea, Vanessa Ezcurdia hasiberria, urduritasunak erasanda aritu zen hasieran, baina, amaiera aldera, apur bat lasaitu ze-

nean, hobeto moldatu zen. Lehen parte-hartzean finalean sartzea bada nahiko meritu beretzat, batez ere gomazko paletan hiruzpau hilabete bakarrak daramatza-nean.

## Lehen mailakoak

Lehen mailako finala, berriz, 18:00etan hasi zen. Bi munduko txapelkun aritu ziren nor baino nor atzeko koadroetan, Arozena eta Mendizabal, Etxegia eta Zabala lekin bikotea osatuz, hurrenez hurren. Partida hasi eta lehen herenera iristerako markagailuan

zuloa ireki zuten Zabala eta Mendizabalek eta, hortik aurrera, Etxegia-Arozenak lanean jarraitu bazuten ere, amorerik eman gabe, nahikoa izan zuen alde hori berak ederki asko dakien eran kudeatzea Maider Mendizabalek, nolako kategoriako pilotaria den nabarmenduz.

Miren Zabalak ere oso ongi lagundu zion Mendizabali tanto polit askoak ere lortu zituen. Mirari Etxegiak ez zuen bere egunik onena izan eta Nagore Arozena, berriz, bere «irakasleari» kilimalegiten saiatu zen arren saiakeran baino ez zen geratu kontua.

Amiaeran, ohitura onei utsiz, familia argazkia atera eta afaria eginez ospatu zuten txapelketa parte-hartzaileek.

## Gipuzkoako Txapelketa

Datorren asteburutik aurrera beste txapelketa bat jokatzen hasiko dira emakume pilotariak, ezker hormako elkarrean arteko Gipuzkoako Txapelketa. Pilotariak elkarrean izenean eta euren elkarrekin jokatu dute.

Txapelketa honetan partidak ez dira hain orekatuak izango, alde nabarmenak baitaude elkarre batzuetako eta besteetako pilotarien artean.

## ERREDAKZIOA

Larunbatean, Hernaniko udal pilotalekuan, jokatu zuten ezker hormako IV. Emakumea Pilotari Txapelketako finala. Jendetza itzela bildu zen bertan, 300 pertsona inguru, eta «giro paregabea» egon zen antolatzaileen hitzetan.

Finaleko bi partida izan ziren, Tijero-Ezcurdia Lizeaga-Lucasen aurka eta M. Zabala-Mendizabal eta Etxegia-Arozena. Lehenengo bikoteak bigarren mailako partida jokatu zuten eta Lizeaga-Lucasek



## Mendiko GPS ikastaro arrakastatsua

**BERASTEGI** » Berastegiko Udalak eta Aldin, Basurde eta Urepele elkarrekin antolatutako mendiko GPS ikastaroak aurrera jarraitzen du. «Harrera oso ona izan du, herritarren parte-hartze handiarekin. Guztira, 15 lagunek osatzen dute taldea, 4 egunez teoria emanez ariko dira eta beste egun batez praktikan jarriko dute ikasitako», diote antolatzaileek. HITZA

## 4-4 berdindu du Lauburuk Sestaon

**Ibarra** » Ion Ander Karrerak ezingo du denboraldi honetan jokatu medikuek horrela agindu diotelako.

## ERREDAKZIOA

Bizkaiara joan ziren herenegun Lauburukoak Sestaoren kontrako partida jokatzeko. 4-4 berdindu zuten azkenean eta partida nahiko liskartsua izan zen. Izan ere, Lauburuko ordezkariek esan bezala, «sestaotarrak sarrerak egiten aritu ziren partidaren zehar».

Partida indartsu hasi zen eta bosgarren minutuan Unai Labacak gola sartzea lortu zuen. Zazpigarren minutuan eguneko biga-

rren gola sartzea lortu zuen Lauburuko jokalariek. Hirugarren gola ere berak sartu zuen 17. minutuan. Lehen zatia 1-3 emaitzarekin amaitu zuten, hala ere.

## Kanporaketa ugari partida bukatzerakoan

Bigarren zatian 21. eta 23. minutuetan hiruna berdindu zuten. Partida 4-4 emaitzarekin bukatu zen azkenean, eta epaileak ere orduan erreakzionatu zuen; Sestaoko hiru jokalariek eta teknikoetako bat eta Ibarroko Loitzuan Sanz kanporatu zituzten.

Bestalde, Ion Ander Karrera jokalariek igandean jakinarazi zuen osasun arazoak direla medio denboraldi honetan guztian zehar ezingo duela jokatu.

## Laburrak

### Herria Abian-en bilera izango da gaur, 19:00etan

**TOLOSA** » Aldaketa sozialaren aldeko Herria Abian plataformak bilera antolatu du gaurko, 19:00etan LAB sindikatuaren Tolosako egoitzan. Plataformak «Euskal Herriak eta bere langile klaseak behar duten aldaketa soziala zehaztu nahi du aurtengo ikasturtean», eta hori gauzatzeko herritarren ekarpenak jaso nahi dituzte gaurko bileran.

### Ibarratik Misio Taldearen hitzaldia 19:30ean

**IBARRA** » Ibarrik Misio Taldearen Izaskun Azurmendik eta Josune Agirrek *Baba: herritarren iniziatiba, promozioa eta erantzukizuna animatu nahian* hitzaldia eskainiko dute, gaur 19:30ean Ibarroko Kultur Etxean Kultur Truke Hamabostaldien baitan.

Tolosaldeko eta Leitzaldeko HITZAn jarri eta  
Gipuzkoako beste 4 Hitzetan  
DOAN agertuko da

HITZak Gipuzkoan 120.000 irakurle

hilberriak  
urteurrenak  
eskertzak



Villabonako EHEk pasa den martxoan Osakidetzaiko oposaketan euskaldunen hizkuntza eskubideen urraketa salatu zuen. HITZA

## Larunbaterako «festa xumea» antolatu du EHEk

**Villabona** » EHE nazio mailan burutzen ari den Ezabaketa Astearen harira antolatu dute ekitaldia, Maiatzak 1 plazan.

### ERREDAKZIOA

Euskal Herrian Euskarazek Villabona gaur egun «oraindik ematen diren eskubide urraketen aurrean» aldarrikapenei tinko eutsi nahi die, «euskararen aldeko borrokan jarraitzea ezinbestekoa ikusten» baitute. Honen harira, urtero bezala azaroaren 23tik 29ra EHEk nazio mailan burutuko den Ezabaketa Astearen parte hartzerako gonbidatzen ditu herritarrak.

Halaber, azaroaren 28rako, larunbaterako, Maiatzak 1 plazan (Kultur Etxe ondoko plaza txikian) ekimen herrikoiki xume bat prestatu dute, ekimen zabal honekin bat eginez.

Hala, 11:00etatik aurrera izango da ekitaldia. Hasteko, tortila ezberdinak, txorizo egosia, urdaiaz-pikoa, sagardo, ardoa, ... izango dira aukeran. Zehaztu dutenez pintxo eta edaria euro baten truke eskuratu ahaliko da.

Bitartean, pareta margotuko dute *Euskaraz biziz*, *Billabona eta*

### » AZAROAK 28: EGITARAUA

■ **11:00.** Hamaiketako: Tortila ezberdinak, txorizo egosia, urdaiaz-pikoa, sagardo, ardoa, ... Prezio herrikoikiak: Pintxo eta edaria euro 1.

■ **Bitartean.** *Euskaraz biziz*, *Billabona eta Euskal Herri euskalduna erak!* leloarekin pareta margotuko dute.

■ **13:30.** Kalejira-Trikipetoea herriko kale eta tabernetan zehar.

*Euskal Herri euskalduna eraki!* leloarekin. Elkarteko kideek argitu dutenez, «pasa den uztailaren 31n festa egitarauan hasi ginen lan horretan baina Remi Ayestaranen heriotza eragin zuten gertakari larrien ondorioz bertan behera utzi genuen».

Festari jarraipena emateko 13:30ean kalejira-trikipetoea egingo dute. «Herriko kale eta tabernak euskaraz alaituko ditugu!», argitu dute.

### EHEren irakurketa

Villabonako EHEk azken 30 urtetan eginiko lana aztertu nahi izan du. Izan ere, Hilabete honetan 30 urte bete dira Euskal Herria Euskaraz sortu zenetik: «Urte luzeetan herri mugimenduak eta euskalgintzako eragileek egindako lanari esker aurrera pauso nabarmenak eman diren arren, zoritxarrez, EHE sortzerako bultzatu zuten arrazoi nagusiak bere horretan diraute». Beraz, oraindik euskararen normalizazioaren aldeko «borroka ezinbestekoa» dela adierazi nahi dute EHEtik, eta «ofizialtasunaren alde, euskaraz bizitzeko benetako aukerak izatearen alde, hizkuntza eskubideen urraketa sistematikoaren aurka oraindik lan asko dago egiteko», gehitu dute.

Hizkuntza eskubideen defentsan EHE «aitzindaria izan da» herri honetan baina oraindik «ezinezko egiten zaie egunerokoan euskaraz bizi ahal izatea, lanean, administrazio publiko ezberdinetan, osakidetzan, hedabideetan, ... erdara baita nagusi». Villabonan ere, hizkuntza eskubideen urraketa «eguneroko kontua» direla diote EHEtik, «nahiz eta zonalde nahiko euskaldun bizi, hainbat kasutan derrigorrez erdara erabiltzea behartzen gaituzte».

## Laburrak

### Josune Bereziarturen hitzaldia, gaur Gurean

**VILLABONA** » Aizkardi mendi elkar-teak Mendi Astea antolatu du, 26. aldiz. Gaurkoan bisita berezia jasoko dute. Izan ere, Josune Bereziartu eskalatzailearen *Bide berriak, ilusio berriak* proiektioa izango da ikusgai Gurea aretoan 20:00etatik aurrera. Halaber, 2. Argazki Rallyko lanen erakusketa ere ikusgai jarri dute Gurean.

### Gurean, Jesusen Bihotza parokiaren erakusketa

**VILLABONA** » Jesusen Bihotza parrokiak 100 urte bete ditu. Hori dela eta, ekitaldi bereziak antolatzen ari dira egunotan. Besteak beste, mendeurrenoko argazki erakusketa izango da ikusgai Gurean aste-buruetan 12:00etatik 13:30era.

### Info7 irratia aldeko dantza jaialdia, larunbatean

**VILLABONA** » Hilaren 28an dantza emanaldi berezia izango da Info 7 irratia alde Oinkari, Alurr eta Udaberri taldeekin, Olaederra kiroldegian, 22:30etik aurrera. Sarrrak, Villabonako Amasa kafetegia, Larrea, Kixubi eta Ogi goxon; Ibarrako Atari, Zubiaurre eta Lurdesen; Tolosako Elkar, Raku, Or-bela eta Zurbeltzen; Anoetako Itzulini eta Zizurkilgo Egarrin (helduek 8 euro eta 12 urtetik beherakoek 5 euro). Egunean bertan, helduek 10 euro eta 12 urtetik beherakoek 6 euro.

### Oargiren merkatu txikirako material bilketa

**TOLOSA** » Oargik mendi eta eskiko merkatu txikia antolatu du. Datoren ingandetik, hilaren 29tik abenduaren 8ra arte izango da. Materiala saldu nahi dutenek, Oargin utz dezakete dagoeneko 18:00etatik aurrera. Informazio gehiago, 688 698642 zenbakian.

### Mendi ibilaldia antolatu dute Mendi Asanbladatik

**ALEGIA** » Hilaren 29rako mendi ibilaldia antolatu du Mendi Asanbladak. Txangoari 08:30ean emango diote hasiera eta Tolosa-Amasa-Villabona izango da ibilbidea. Ondoren bazkaria egingo dute. Parte hartu nahi duenak izena eman dezake, Alegiako ohiko lekuetan.

### Ostirlean bertso afaria izango da Intxurren

**ALEGIA** » Udazkenean Kulturaren barruan, hilaren 27rako bertso-afaria antolatu du Zazpi Astoren Gaietan bertso taldeak Arkaitz Oiarzabal Xamoa eta Jokin Labayen bertsolariekin Intxurre elkartean: pasta entsalada, oilaskoa, izozkia eta kafea (17 euro). Txartelak Ikskian eta Jubilatuen tabernetan daude salgai.

## Kobrea eta txatarra lapurtzea egotzita, hiru lagun atxilotu dituzte

**Asteasu** » Ustez industrialguneko bi enpresatan lapurtu zuten; atxilotetak gauean egin zituen Ertzaintzak.

deiari erantzunez. Ustezko lapurrek ihes egun zuten baina hauetako bat atzemate lortu zuten ertzainek. 40 urte ditu gizonetakoak.

### Beste bi atxilotetak, ordu batzuk beranduago

Ondoren, 04:00ak aldera, beste dei batek Ertzaintza ohartarazi zuen furgoneta bat zebilela industrialgunean bueltaka. Patruila bat bertaratu zenean furgonetaren ondoan kobrea eta txatarra topatu zituzten pilaturik. Inguruak miatu eta 34 eta 35 urteko beste bi gizonetako topatu dituzte orduan, ezkutaturik zeudela. Ondorioz, hauek ere atxilo eraman zituzten.

### ERREDAKZIOA

Asteasuko industrialgunean hiru lagun atxilotu zituen Ertzaintzak igandetik astelenera bitarteko gauean bi enpresatan txatarra eta kobrea lapurtzea egotzita, Eusko Jaurilaritzako Barne Sailak jakitera eman zuen.

Lehen atxiloteta gauerdian egin zuten Ertzaintzak bizilagun baten



Eguraldia lagun izan zuten parte-hartzaileek. SARA GOMEZ

## Jon Aperribai izan da azkarrena Amasako mendiatloian

**Amasa** » Amasako Eneko Gurrutxaga eta Tolosako Aitor Regillaga izan ziren bigarren eta hirugarren, hurrenez hurren.

### ERREDAKZIOA

Herenegun Amasan mendiatloia jokatu zuten. Aurtengoa hamazazpigarren aldia zuten eta urteko sasoa zein den kontuan hartuta pozik egoteko moduko eguraldia izan zuten parte-hartzaileek.

Guztira 98 kirolarik hartu zuten parte mendiatloian, horietatik hiru emakumezkoak izan ziren eta gainontzekoak, gizonetakoak.

Sailkapen orokorrean helmugara iristen lehen gizonetako Jon Aperribai arrasatearra izan zen. Honek 54 minutu eta 40 segundoko denbora osatu zuen. Bigarren sailkatua etxeko bat izan zen; Eneko Gurrutxaga amasarra, hain zu-

zen ere. Honek 56 minutu eta 40 segundo behar izan zituen ibilbidea amaitzeko. Denbora berdinarekin hirugarren izan zen Aitor Regillaga tolosarra. Nesketan, berriaz, lehen Hondarribiako Ana izan zen. Bigarren eta hirugarren Aitziber Ibarbia eta Ainhoa Mendia sailkatu ziren, hurrenez hurren.

Proba ondoren, Gurrutxaga bera «oso gustura» azaldu zen eta postu ona espero zuten arren «oso pozik» zegoen emaitzarekin. Gainera, irabazlea «oso indartsu» ibili zela aitortu zuen.

Erorketa batzuk izan ziren ibilbidean zehar baina oro har ez zen istripu larriarik izan. Lehen hiru sailkatuak, nola ez, sariak eskuetan bueltatu ziren etxera. Lehenengok txapela janzteaz gain 75 euro eraman zituen. Bigarrenak 50 euro eta hirugarrenak 30 euro eraman zituen. Hiruentsat garaikurra eta kirol arropa ere izan ziren.



**Argitaratzailea:** Tolosa Herria Hedabideak S.L.  
**Lege Gordailua:** SS-0398-03  
**Zuzendaria:** Noelia Lataburu  
**Egoitza nagusia:** Araba Etorbidea 5, atzea, Tolosa.  
**Telefona:** 943 65 56 95. **Faxa:** 943 65 00 18  
**Leitza:** Herriko plaza, 1. 687 410 118  
**E-posta:** tolosaldean@tolosaldeko hitza.info.  
**Webgunea:** www.tolosaldeko hitza.info

**Zuzendariordea:** Iñigo Terradillos. **Kudeatzailea:** Maider Garaikoetxea.  
**Publizitatea:** 661 678 818 tolosa@iragarri.net.  
**Tolosa:** 687 410 082-687 410 033. tolosa@tolosaldeko hitza.info.  
**Villabona:** 687 410 022. villabona-aiztondo@tolosaldeko hitza.info.  
**Anoetalde:** 687 410 022. anoetaldea@tolosaldeko hitza.info.  
**Ibarraldea:** 687 410 032. ibarraldea@tolosaldeko hitza.info.  
**Alegialdea:** 687 410 034. alegialdea@tolosaldeko hitza.info.  
**Leitza:** 687 410 118. leitza@tolosaldeko hitza.info.

**Tolosa Herria Hedabideak S.L.ko kideak:**

**BERTAKO HEDABIDEAK**

eta Tolosaldeko eta Leitzaaldeko beste 77 eragile

**Hitza-k Bai Euskarari**

**'Hitza' diruz laguntzen duten erakundeak. Udalak:** Aduna, Alegia, Alkiza, Altzo, Amezketa, Anoeta, Areso, Balarriain, Belauntza, Berastegi, Elduain, Gaztelu, Hernialde, Ibarra, Ikaztegieta, Irura, Leaburu, Leitza, Tolosa, Villabona, Zizurkil

Gipuzkoako Foru Aldundia

**Hitza-ko bezeroen arreta zerbitzua** (zalantzak argitzeko, harpidedun egiteko): **902 82 02 01**

## A Agenda

### Mendi asteak

■ **Villabona.** Josune Bereziartu eskalatzailaren *Bide berriak, ilusio berriak* proiektzioa Gurea aretoan 20:00etan, Aizkardiren 26. Mendi Astean.

### Zinema

■ **Tolosa.** Zinema txiroaren jaialdia: DVD proiektzioak, *Mugarik Gabe* erakundeak antolatuta egunero Leidor aretoan 20:00etan. Sarrera doan.

### Hitzaldia

■ **Tolosa.** Unai Elorriagaren hitzaldia *Londres kartoizkoa da* bere azken eleberriari buruz Kultur Etxean 20:00etan.

### Deialdiak

■ **Tolosa.** Liburu azoka San Frantzisko pasealekuan, hilaren 29ra arte.  
■ **Alegia.** Hilaren 29rako mendirteera (Tolosa-Amasa- Villabona) 08:30ean abaituta eta ondoren bazkaria antolatu du Mendi Asanbladak. Izen-ematea, ohiko tokietan.

### Erakusketak

■ **Ibarra.** Kultur elkartruketo astearen barruan, Vanesa Alzate (Ibarra), Gonzalo Perez (Ekuador), Galo Urbina (Ekuador) eta Beibat Abdalahi (Sahara) artisten lanak Tolosaldea Sahararekin elkarteen objektuak ikusgai Benito Izagurre kultur etxean 10:30etik 13:00etara eta 15:30etik 21:00etara.

### » GUARDIAKO FARMAZIAK

■ **Tolosa.** Azipiro, L. Amarotz azkoa, 9. 943 675118.  
■ **Leitza.** Erbiti, O. Lizarraga kalea, 7. 112.

### » IRRATIA

#### Txolarre irrati

Tolosaldeko Ahotsa:  
-11:00-12:00. Albistegia (Eguraldia, eskualdeko albistekak, oharra, agenda...)  
-12:00-13:00. Magazina.  
-13:00-13:30. Lehiaketa eta disko eskainiak.  
13:30-14:00. Eguerdiko albistegia - Info 7.  
14:00-15:00. Tolosaldeko Albistegia.  
17:00-18:00. Musika nobedadeak  
Tolosaldeko Ahotsa (errepikapena):  
-18:00-19:00. Magazina  
-19:00-20:00. Albistegia  
20:00-20:30. Iluntzeko albistegia, Info 7.

HITZAK ez du bere gain hartzen egunkariaren adierazitako esaneren eta iritzien erantzunkizunik.

# Oraingoan larrauldarren txanda

**Larraul** » Atzo ekin zioten Kultur Asteari; igandera bitarte proiektzioak, ume jolasak, azoka, bertso bazkaria,... izango dira.

### ERREDAKZIOA

Indartsu ekin zioten atzo Larraulen Kultur Asteari. Eta igandera bitarte horrela jarraituko du, egunero izango baitute bertan ekitaldiaren bat. Atzo goizean, esaterako, garai bateko ohiturak berreskuratuz txondorra egin zuten Kultur Etxearen atzealdean. Eguraldiak ere lan honetan lagundu zuen. Eta arratsaldean Kultur Astearen eta txondorraren hasiera ekitaldia egin zuten txalapartaren laguntzarekin. Ondoren, etxeko txikien ztat filma proiektatu zuten Kultur Etxean. Helduentzat ere izan zen filmarik, azken hau iluntzean izan zelarik.

### Ekitaldi berezienak

Kultur Astea osatzen duten ekitaldi guztiak daude mimos antolatuak, baina berezienak agian larunbateko Xabi Paya eta Andoni Egañarekin bertso bazkaria eta igandeko azoka berezia izango dira. Lehenengorako txartelak herriko elkartean edo ostatuan eskuratu daitezke eta bihar da azken eguna. Bigarrenegorako, berriz, Baserrietako produktuak egongo dira eta herriarrek egindako eskulanen erakusketak egongo dute.



Atzo izan zuten Larraulen Kultur Asteko lehen eguna; igandera arte izango dute zer gozatua. ENERITZ MAIZ

### » EGITARAUA

#### Hilak 24, gaur

■ **17:30.** Larraulgo argazki diaporama Kultur Etxean.

#### Hilak 25, bihar

■ **17:30.** Azken 10 urteetan herriaren egin diren haur antzerkiekin osatutako bideo emanaldia eskainiko dute Kultur Etxean.

#### Hilak 26, etzi

■ **19:30.** Felix Baltistan Fundazioaren eskutik Pakistani buruzko *El-kartasuna mendia bide* argazki proiektzioa Kultur Etxean, bertako gatzakengatik bizilekuz aldaraziak izan diren 4 milioi pertsona baino gehiagoren egoera azalduz.

#### Hilak 27, ostirala

■ **17:00.** Umeentzako merienda. Ondoren eskulanak egingo dituzte Katillu-Txulo Elkarteak.  
■ **19:00.** Altxorren bila jokoa egingo dute herriaren zehar (antolatuak linternak eramateko eskatu dute).  
■ **22:00.** Mus txapelketa Katillu-Txulo elkarteak.

#### Hilak 28, larumbata


■ **12:00.** Pilota partidak.  
■ **14:00.** Bertso bazkaria Xabi Paya eta Andoni Egañarekin.  
■ **16:30-18:00.** Erakusketak museoan, Larraulgo egutegiko argazkien aukeraketa.

■ **18:00.** Teresa Lopez ipuin kontalaria *Iturri amaigea* ipuina aurkeztuz Kultur Etxean.

#### Hilak 29, igandea

■ **10:00.** Azoka herriko produktuekin. Baserrietako produktuak egongo dira eta herriarrek egindako eskulanen erakusketak egingo dute.  
■ **16:00.** Pilota partidak pilotalekuan.  
■ **16:30-18:00.** Erakusketak museoan, Larraulgo egutegiko argazkien aukeraketa.  
■ **18:00.** Talo eta gaztaina jatea egingo dute Katillu-Txulo elkarteak.

## A Agurrak



**Epaaaaaaa!**  
**Adarretik adar.** Urte osoa egun honen esperoan... Eta 08:00tako martxan! Opari earral!

### SOLAGÜEN 2004. urteko

ERRESERBAko ardoa

6 botilako kutxa

60 €

12 botilako kutxa

72 €

SOLAGÜEN 2005. urteko

ardo ONDUA

### REMELLURI 2005. urteko

ERRESERBAko ardoa

3 botilako kutxa

40 €

6 botilako kutxa

80 €

### BRUT NATURE MAINEGRA

MENDABIKA CAVA  
MAHATS MOTAK: 85% vitiko, 15% paretosa, 15% chardonnay.

LEGITAN ONDUA:  
Hogei hilabete baino gehiago.  
Buzina USARAIK:  
Bolumenaren 912 gutxi gorabehera.

6 botilako kutxa

39 €

## Erosi berriaren plazan

EUSKAL HERRIKO PRODUKTUAK

azaroaren 30a arte



943-30 43 45  
www.berria.info  
harpidetza@berria.info  
Bidalketa gastuak doan



Alfar  
La Maja

6 botilako kutxa

36 €